



# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Jende askori gertatu zaigu noizbait komunean, sukaldean edo etxeko leku batean egotea sukaldatzen edo dutxatzen, eta faltan botatzea zerbait gure mugikorra, tableta edo edozein gailu elektronikoko eusteko, denbora guztian adi egon behar dugulako non ipini ez bustitzeko, ondo ikusteko, etab.

Étegère-k hori eskainiko du! Produktu berritzailea , oso dotorea. Gainera, tamaina ezberdinak daude eta kolore eta testura ezberdinekoak daude. Tresna bakoitzaren gustura diseinatzeko aukera dago, zure etxeko apainketarekin ehuneko ehunean konbinatu ahal izateko, orduan, bai edo bai egokiena aurkituko duzu. Horretarako, gure web-gunean atal berezi bat dago, bertan, hainbat galdera ezberdin egingo zaizkizu, zure Étagère gustukoena eta zurekin bat egiten duena bilatzeko.

Bozgorailu bat darama alde batean txertaturik soinuaren kalitatea hobetzeko. Garantiari buruz hitz egiten badugu, gure enpresak limite gabeko garantia eskaintzen du Étegère produktuan, hau da, arazoren bat badago, gure enpresa arduratzen da beste bat ematen edo hau konpontzeko inongo kosturik gabe.

Erraztasunez lekuz aldatzeko aukera ematen du, hau da, etxean izateaz gain, edozein lekutara garraiatzeko aukera egongo da eta etxeko edozein lekutan jarri dezakezu ere. Nola lortu dugu hau? ultraimanarengatik, iman berezi bat da, hau bistan ezin da ikusi eta Étegère produktuaren dotoretasuna ez du oztopatzen.

Non aurkitu dezakezu Étegère? Ez da aurkituko edozein lekutan, gure enpresan bakarrik lortuko da, produktu bakarra eta berezia da, abantaila eta erraztasun handiak ematen dituena, beraz, esan dezakegu geure tresna berritzailea bezero multzo zabal batera irits daitekeela.

Mugikorra edo gailu elektronikoen ibiltzeko ohitura duten pertsonen zuzenduta dago, baina mota honetako pertsonak ez daukatenez profil zehatz bat, ezin dugu asko mugatu. Espainian populazioaren %40-k, 2 orduz edo gehiagoz erabiltzen du mugikorra egunean, baina portzentaia igotzen ari da 16-24 urte bitarteko jendearen artean.



Datu hauei erreparatuz, esan dezakegu populazioaren gehiengoak egunean behin gutxienez teknologia erabiltzen duela. Horrek gure enpresari onurak ekar ditzazke, jende askorentzat erabilgarria izan daitekelako. Orokorrean, Étegère edozein adineko pertsonak erabili dezake.